Mitoz eta ideiaz

Euskararen mitologiaz eta ideologiaz liburu mamitsu bat eskaini digu Antonio Tovar jaunak. Oso ongi etorriko zaigu gure herrirarentzat. Oraindik orain ere, kulturadun itxuraz, hamaika pertsona badira euskararen sorrera Babel-go nahasmendutik ez ezik Adan eta Ebak paradisuan mintzatzen zirenetik datorrela sinesten dutenak, eta gainerako hizkuntzak sustrai horren ondorengotzat dituztenak. Egia esan, beti izango dira mundu honian era guztietako pertsonak, lelokeririk harrigarrienak ere sinisteko gertu. Holakoak izan bai dira mirakuluen sortzaile. Beti izango dira arrazoietara makurtzen ez diren gizonak, baina, zori onez, gehienak zentzunezkoak dira eta hauei zerbituko die Tovar-en ***Mitologia e ideologia sobre la lengua vasca*** *deritzan liburu honek. Mitoen nondikakoa eta hizkuntzari buruzko ideiak historian zehar nola izan diren erakusteko oso baliagarria.*

Aintzinako denboretatik oraingo eritzi berriak arte, zenbait egilek beren testuetan erabili dituzten aburuak xehetasunez agertzen dizkigu, unerik ilunenak argitzeko ere jakintza eremuetatik irten gabe agertuko dizkigu. Liburu irakurgarria benetan.

Testamentu Zaharreko lehen partean aurkitzen dugun Etorkiaren hamargarren kapituluan omen ditu euskarak aintzinatiko mito horien oinarriak. Flavio Josefo historia-gileak lehenik eta San Jeronimok geroztik, herrien eta hizkuntzen sorrera Jafet-en semeegandik hasiaz. Tovar-ek ederki harilkatu digu gai hau, alderantziz, haritik mataza lortu arte. Hartok hain nahasiak zeudenez, ondo berezirik jarri ditu. Ordena lojiko batera eramanaz, hara hor edonor jakitun jarizeko eran ipinia.

Obra honen barnean, tareko izango dira zuzendu beharrezko gauzak, zehatzasunerako lagungarri direnak eta baita gehitu beharrezkoak ere, baina bere funtsean ez dut uste aldaketa askorik egitekoa denik. Esate baterako, 17. orrialdean, Unamunoren eritzi bat zalantzan jartzen du, puente la Reina hirian euskara noiz arte egin zenari buruz, bertan mundura sortu zen Ximenez de Rada-ren eritziak agertzean (nafar haun bai zen, XIII. mendearen lehen partean, "Iberi" hura "Hispani" edo Espainian jartzen zuena); baina A. Díez y Díaz-ek Puente la Reina-ri buruz egin zuen liburuaren bigarren kapitulua irakurtzen baldin badugu, Unamuno bide zuzenetik zebilela esan behar.

Georgia aldeko Iberia gure Penintsula hontara ekartzetik sortu ziren ondoko eritziak eta Garibay-ren ondotik Poza, Echabe, Oihenart, Moret, Henao eta beste abiatu ziren teoria hortatik, elkar poztuz eta puztuz. Are gehiago, lehen Penintsula zalantzagarri zenetik Tubal Bermeora etorri zela baieztu arte. Baina herrizaletasun artan bazen urak norpere eiherara eroan nahi zuenik ere eta hara nola Lope de Isasti guipuzkoar historigileak probintzi honi buruz 1625ean idatzi zuen liburuan Tubal Pasaiara etorri zela nola aipatzera heldu zen (ikus, IV. liburuko VI. kapitulua).

Astarloa eta Traggia-ren garaian muturrik mutur eta bizi ari ziren gai honi buruzko eztabaidetan. Ordurako Henrique Flórez-ek emana zuen aski argi, Testamentu Zaharreko Iberia ekialdekoa zela eta ez hemengoa, baina seiak eta bihozkadak indar handiz jarraitu zuten gure mende hontara arte.

Larramendi bera ere ez zen salbatu neurririk gabeko eritziak ematetik. Baina, aburu harrigarrien abiada hartan Astarloa heldu zen disparateen erpinera. Beretzat, euskara, paraisuan Adan eta Eba mintzatu ziren hizkuntza ber-bera zen, eta gizakiaren lehen hitzak ikertu nahi zituen, haur mutilezkoak "a" eta neskatoak "e" zutela lehen hotsez; Adan eta anaia eta Eba ta arreba-ren arteko kidetasunak; eta nik ez dakit zenbat amets antzu gehiago. Sabino Arana berak ere hortik hartu zuen emakumezko izenen bukaera "e"-kin eta gizonezkoena "a"-kin izatea. Tovar-ek bere liburuaren 171. orrialdean aipatzen dituen bitxikeriak indar diabolikoa hartzen dute herrean, oker dagoena bera ere hontzat emtera arte; bai, halakok esan duelako eta kitto.

Baina linguistika jakintzak bere bidea egin du. Julio Urkixo eta R. M. Azkuek batez ere, beste bide batetik eraman zituzten beren ekintzak, bai bilketaz eta bai azterketaz. Geroztik, pertsona arraro batzuk baizik ez dute aipatu paradisuko hizkuntzarik.

Abertzalekeriz ari diren batzuk beti izango dira gure hizkuntzaren bitxikeriak goraipatzeko; naiz eta erdaraz mintzatu. Baina euskaldunok ohartuak gara gure mintzaira hönegatik garala euskaldun; honek ematen digula izena eta sena. Eta beharrezko dugula egungo bizitzak eskatzen duen maila guztietara eramatea: eskoletara, egunkarietara, irratira, telebistara, administraziora,. Tovar-ek berak ongi dion bezala. Zeren hori ukatzea, bizitza ukatzea balta.

Juan SAN MARTIN

Todavía hay personas en nuestro país, con pretensiones de cultas, que siguen creyendo a pies juntillas los misteriosos orígenes de nuestra lengua vasca y de ser ésta la matriz de donde partieron las otras. Siempre habrá personas con las que no entraremos con la razón, pero la inmensa mayoría seguirá siendo sensata y para ellas, si están interesadas, puede servir el libro de reciente aparición, **Mitología e ideología sobre la Lengua Vasca de Antonio Tovar,** que les guiará sobre las distintas creencias y opiniones en la materia a través de la historia, ayudando a aclarar con erudición y sano criterio hasta las partes más intrincadas. Un libro merecedor de una gran difusión.

En él se recogen las distintas teorías existentes desde la antigüedad hasta los moderno conceptos.

Parece ser que todo comenzó de las interpretaciones, de Flavio Josefo primero y de San Jerónimo después, del capítulo décimo del Génesis para la búsqueda de los fundadores de pueblos y lenguas. Luego se confundió a los iberos de oriente con los de occidente. De ese modo, del hilo salió el ovillo. Pero el entrecruzado de los hilos fue fatal para la lingüística vasca. Harto trabajo le habrá dado a Tovar el desenredar la madeja mal hecha. Lo que ha conseguido con magistral orden cronológico, poniendo las cosas en su sitio y salirse airosamente a la información pública.

Toda obra es susceptible y ésta de Tovar podrá admitir algunas modificaciones en pequeños detalles, pero éstas no podrán ser esenciales al argumento general sobre el desarrollo del mito e ideas y síntesis del contenido. Por ejemplo, en la página 17, nota al pie, se pu[illegible] confirmar que Unamuno estaba [illegible]guro al decir que en Puente[illegible] Reina (donde nació Ximénez [illegible] Rada, quien "Iberi" situó en "Hi[illegible]pani") en el siglo XIX aún se h[illegible] blaba vascuence, según nos dice [illegible]menta Alejandro Díez y Díaz en [illegible] capítulo segundo de su obra mo[illegible]gráfica **Puente la Reina y Sarta[illegible] la historia (1977),** pero ello no [illegible]tera los argumentos básicos de [illegible] obra.

Tras el historiador guipuzc[illegible] Garibay, Poza, Echave, Oihe[illegible] Moret, Henao y otros fueron [illegible]chando la teoría de la llegada [illegible] Tubal. Es más, lo que al prin[illegible] se apuntaba a la Península de [illegible] manera ambigua, la mayoría de [illegible]zaron a sostener que Tubal [illegible] por Bermeo. Pero en este tra[illegible] influyen los patriotismos de cam[illegible]nario y para el historiador Isasti [illegible] su obra escrita en 1625 (lib. IV. [illegible] VI), desembarcó en Pasajes.

A pesar de que Henríquez Fló[illegible] aclarara suficientemente el [illegible] desde los forcejeos surgidos p[illegible]palmente en época de Traggia y [illegible]tarloa avivaron las posturas [illegible]dictorias que se exponían [illegible] tiempos atrás. Las teorías del [illegible]rangués elevaron nuestra [illegible] hasta el paraíso, y la caída [illegible] mayor a medida que iba avan[illegible] la ciencia lingüística. No obs[illegible] hay que reconocer que el ob[illegible] expuesto en la página 171. [illegible] posee un poder diabólico en [illegible] país.

La sabiduría, con el tiempo, [illegible] devuelto las aguas a su sitio. [illegible] obra no tiene desperdicio y [illegible]mendamos a cuantos deseen [illegible]marse sobre el tema.

Tolosan behar dala gauza hau erabaki

Dotzena bete urte nahiko dira Tolosako Lehiaketaren historiatxo bat egiteko. Urtearen amaieran datorkigun Zezilia Deunaren egunean musikari dagokion azterketa bat egitea, Tolosako ikusbegitik, ez da alperreko lana izango, ene ustez. Lehiaketa honek ematen digu gure abesbatzen naurria eta.

Hamabi urte hauetan gertatu diranak ikusita, alaitasunik agertzeko arrazoirik ez daukagu euskaldunok. Gorabehera handiak izan ditugu partaide aldetik, eta saritu eta kalitatearen aldetik. Lehen bi urteetan (1969, 1970) euskal koruak baino ez ziran hurbildu Tolosako Lehiaketa honetara: 18 lehenengoan eta 10 bigarrenean eta sariak gure artean geratu ziren. Nazioarteko Lehiaketa hurrengo urtean hasi zen (1971.ean). Madridetik, Aragoitik, Catalunyatik partaideak agertu zirenean, kultur alorrean behintzat nazio desberdinak gara eta. Gure Iparraldeko Begiraleak eta Oldarrak ez diote Lehiaketari nazioarteko mailarik ematen gure haurrak ere dakitenez, antolatzaile adiskideok! Baina atzerriarrak heltzen diran unean, Madridekoentzat da abots nahaztuen lehen saria. Lehiaketa oraindik gaztea dalarik biztu da argi gorri larria. Egia esan, hirugarren aldaraketa honetan partaidetza ugariena izan genuen 28 koru azaldu ziren eta. Koru atzerritar bat garaile ikusiaz ikaratu egin ziren orduan gure euskal abesbatzak? Baietz esango nuke. V. Lehiaketan (1973.ean) 22 korutik hamar bakarrik izan ziren euskaldunak eta. Urte honetan azalduko zaizkigu Europako Koruak eta Alemaniako batek irabaziko du euskal abestietan – gauza miragarria – lehen saria. Hurrengo urtean (1974.ean) Europarrak izango dira jaun eta jabe: alemanak, hungaroak eta bulgaroak eramango dituzte beren herrietara lehen sariak. 23 koruen artean hederatzi bakarrik izango dira euskaldunak eta Tolosako Leidor abesbatzak irabaziko du guretzat sari bakarra.

Zazpigarren Lehiaketa iragapenezkoa izango da: Hogeitabi koruetatik erdiak euskaldunak dira eta sei sarietatik lau lortzen dituzte; baina kalitatearen aldetik beherakada handi batetan jausten da Lehiaketa. Eta adoregabeziak hondatzen ditu euskal koruak: hurrengo urtean (1976.ean) hamairu abesbatzen artean hiru bakarrik izango dira Euskalerrikoak.

Lehiaketaren zalbabidea Polifonia sartzea dala uste dute antolatzaileak eta lehendabiziz jartzen da abestera berri hau IX. Lehiaketan (1977.ean). Baina pozgarri hau eman arren, hamairutik sei bakarrik hurbiltzen dira Euskalerriko koruak; eta hamabi sari artean lau baino ez dituzte lortzen. Hurrengo urteetan (1978, 1979 eta 1980) kikildu eta amildu egingo dira gure euskal koruak eta zazpi, bost eta lau agertuko dira Tolosako Lehiaketan. Bulgaria, Hungria, Polonia eta Filipinasetara joango dira saririk gehienak. Azken urtean (1980.ean) zortzi abesbatz baino ez dira azaldu, lau bakarrik euskaldunak direlarik. Zer jazo da egoera honetara iristeko? Nahiz eta garaileen kalitatea oso ona izan azken Lehiaketan, hurrengo urteetan pikuetara joateak bildur ematen dit.

Gogarte bat egin beharko dugu, aratzaileok! Zergaitik hamabi urteen zehar 18 euskal koruetatik 4raino jaitsi gara? Zergaitik euskal koruentzat sariak lortzea ezinezkoa bihurtu da? Nor ote da errudun beherakada honetan? Gauzak serioki aztertu beharko ditugu ostrukaren jokoa ezin izango dugu jokatu. Denon artean egin dezagun ahalegin gogatsu bat Tolosako eta Euskalerriko Lehiaketa hau salbatzeko. Iparragirreren hitzak gogoratuz ***Tolosan beharko da gauza hau erabaki!*** *Eta ene ustez hasi gara bide okerra zuzentzen. Salatu behar izan dan eta salatu dan gauza bat publikoki esana da: Euska! koruak, harrokeriak alde batera utziaz, teknika eta adierazkortasunean heziketarako bide berriak zabaldu behar ditugu. Urton kantu heziketari buruz antolatua izan zen mahai inguruan azaldu zen bezala, kantu teknika aldetik asko baino gehiago aurreratu behar gara Europako lehen mailan egon nahi badugu. Kultur eta Heziketarako Konseilaritzak badute zereginik alor honetan. Izan dadila Tolosa giro eta garai berri baten sortzailea.*

Jose Antonio ARANA MARTIJA

Una docena de años son suficientes para hacer una pequeña historia del Certamen de Tolosa. La festividad de Santa Cecilia puede servirnos para hacer además un pequeño examen de nuestra situación musical, al menos de la música coral desde el punto de vista de Tolosa.

Viendo lo que ha ocurrido en estos doce años no tenemos los vascos motivos de alegría pues ha habido grandes altibajos en el número de participantes en los premios y en la calidad de las interpretaciones. En los dos primeros años (1969 y 1970) sólo acudieron coros vascos, 18 y 10 respectivamente. Fue el año 1971 cuando pudo empezar a hablarse de Certamen Internacional pues, al menos desde el punto de vista cultural, Madrid, Aragón y Cataluña son naciones diferentes a la nuestra, y como saben hasta los niños, la presencia de los coros Begiraleak y Oldarra no confieren al Certamen nombre de internacional. Pero en cuanto aparecen los coros de fuera, ya tenemos que ceder el primer premio a los madrileños. Ya se ha encendido el piloto rojo que prevé futuros años más tristes todavía. A decir verdad, fue este el año en que más participación hubo pues fueron 28 coros los que acudieron en 1971. Pero parece ser que aquí empezó el miedo de nuestros coros a la participación extranjera. Y así, en 1973, de 22 coros sólo diez fueron del País Vasco. Entonces fue cuando aparecieron los coros alemanes y franceses y aquellos se llevaron – oh milagro – el primer premio de canción vasca. Ya al año siguiente los alemanes, búlgaros y húngaros se adueñarán del Certamen y se llevarán cinco de los seis premios. El año 1975, VII Certamen, será de transición y se advertirá ya un bajón en la calidad. El desánimo cunde entre los coros vascos y en 1976 de trece coros sólo tres del País Vasco toman parte.

Se piensa entonces que la salvación del Certamen puede estar en introducir la Polifonía que se impone, además de la canción vasca y folklórica en el IX Certamen de 1977. Pero a pesar de este aliciente, de trece coros presentados sólo son seis los del País. Y entre doce premios sólo cuatro quedan [illegible] los siguientes años (1978 a 19[illegible]) coros vascos se animan a [illegible]jando de siete a cinco y con [illegible] participantes. La mayoría de los [illegible]mios irán hacia Bulgaria, Hun[illegible] Polonia y Filipinas. ¿Qué es lo [illegible] ha ocurrido para llegar a esta situ[illegible]ción? Aunque la calidad de los [illegible]cedores ha sido buena en el [illegible] Certamen de 1980, tengo miedo [illegible] que este Certamen vaya a desa[illegible]cer.

Tenemos que hacer una profu[illegible] meditación. ¿Por qué de [illegible] vascos hemos bajado hasta [illegible] ¿Por qué se ha convertido en [illegible]sible para los coros vascos el [illegible] algún premio? ¿Quién es res[illegible]ble de este declive? Tendríamos [illegible] analizar seriamente los motivos [illegible] seguir el juego del avestruz. Sí [illegible]mos entre todos este Certamen [illegible] Tolosa. A mi modo de ver el [illegible] empezado a endenzar el camino [illegible] menos se ha denunciado lo que [illegible] había que denunciar. Los [illegible] vascos, dejando a un lado su [illegible]gancia, tenemos que bajar de [illegible]mino de una educación en la [illegible] y en la expresividad. Si queremos [illegible] colocarnos en el lugar que [illegible] ropa nos corresponde, debemos [illegible] avanzar en estos aspectos [illegible] se vió en la mesa redonda [illegible] Tolosa. Ya tienen quehacer [illegible] aspecto las Consejerías de Cultura [illegible] Educación. Deseo de corazón [illegible] Tolosa sea el animador de un [illegible] ambiente y una nueva época [illegible] canto coral en el País Vasco. [illegible] dando a Iparragirre, este año [illegible] decidirlo en Tolosa!